



MINDUP: Zure burmuinak ere atsedena behar du



Egileak: Asier Morcillo, Ander Mesonero, Arturo Martinez eta Lur Milla.

Ikasketa: MKT-IKT BATX1



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
STARTINNOVA (CANVAS EREDUA)	3
IDEIA	3
BALIO-PROPOSAMENA	3
SEGMENTAZIOAK	3
ALIATUAK	3
KANALAK	5
HARREMANAK	6
BALIABIDE MOTAK	7
JARDUERA	8
KOSTUAK	8



STARTINNOVA (CANVAS EREDUA)

IDEIA

MindUp gazteentzat sortutako proiektu digitala da, haien ongizate pertsonala eta emozionala lantzeko helburua duena. Proiektuak gazteen eguneroko bizitzan agertzen diren erronkei erantzun nahi die, espazio erraz, seguru eta erabilera erraza eskainiz. MindUp-en bidez, teknologia tresna gisa erabiltzen da gazteei hobeto sentitzen, oreka pertsonala lantzen eta egunerokoan lagungarriak diren ohiturak garatzen laguntzeko.

BALIO-PROPOSAMENA

MindUp-en Balio Proposamena eta Xede-Publikoa

MindUp-en balio berezia gazteei ongizate emozionalerako plataforma integral eta personalizatua eskaintzea da. Gure aplikazioak tresna praktikoak, komunitatearen laguntza eta osasun mentalean arreta uztartzen ditu, guztia ingurune digital seguru eta erabilera erraz batean. Horrela, gazteek euren burua hobeto ezagutu, estresa kudeatu eta bizitza orekatuago bat izan dezakete.

SEGMENTAZIOAK

MindUp bereziki 16 eta 22 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Hauek dira gure erabiltzaile idealak:

- Batxilergoko eta unibertsitateko ikasleak.
- Euren ongizate emozional eta mentalaz arduratzen direnak.
- Sare sozialak eta mugikorreko aplikazioak aktiboki erabiltzen dituztenak ya dijimos que íbamos el viernes y así para el domingo me da igual.
- Estresa eta antsietatea kudeatzeko tresna praktikoak bilatzen dituztenak.

ALIATUAK

MindUp-en funtzionamendurako, ezinbestekoa da bazkide garrantzitsu batzuekin aliantzak sortzea. Gure bazkide potentzialak:

- Osasun mentaleko profesionalak: Psikologoak, terapeutak, coach-ak, MindUp-eko erabiltzaileei edukiak edo laguntza eskaintzeko.
- Gazte erakundeak: Gazteekin lan egiten duten elkarteak, GKEak edo erakundeak, MindUp euren publikoaren artean sustatzeko.
- Teknologia enpresak: diseinatzaile grafikoak, marketin digitalean adituak, aplikazioaren sorkuntzan eta sustapenean laguntzeko.
- Eduki hornitzaileak: Musikariak, artistak, idazleak, aplikaziorako jatorrizko edukiak eman ahal izateko (musika lasaigarria, ilustrazioak, motibazio testuak, etab.).



Aliantza motak:

- Akordioak psikologoekin, MindUp-en bidez online terapia saioak bezala eskain nahi ditugu.
- Lankidetzak gazte erakundeekin, osasun mentalari buruzko tailerrak antolatzeke.
- Aliantzak teknologia enpresekin, aplikazioaren funtzionaltasuna eta diseinua hobetzeko.
- Akordioak eduki/egin hornitzaileekin, kalitatezko musika eta gidatutako meditazioak eskaintzeko.

SARRERAK

Diru-sarreraren iturriak:

MindUp aplikazioaren kasuan, diru-sarrerak honela lortuko lirateke:

- Premiun bertsioa: Erabiltzaileek hilero (edo nahi duten tartean) 2,49€ ordainduko dute, eta horri esker eduki bereziak izango dituzte, adibidez: erronka pertsonalizatuak edo meditazio saio bereziak.
- Publizitatea: Doako bertsioan iragarki txikiak agertuko dira. Iragarki horiek ikusten dituztenean, app-ak dirua irabazten du, eta horrela etengabe diru-sarrera izango du.
- Lankidetzak profesionalak: Osasun mentaleko edo ongizatearen arloko profesionalarekin lan eginez, erabiltzaileek eduki bereziak edo aholkularitza lor dezakete. Horrek ere dirua ekarriko du app-ari.

KANALAK

Produktuen eta/edo zerbitzuen banaketa:

MindUp aplikazioa banaketa digitalaren bidez zabalduko da, hau da, Interneten bidez:

- Play Store eta App Store: erabiltzaileek MindUp aplikazioa doan deskargatu ahal izango dute euren gailu mugikorretan.
- Webgunea: bertan informazio gehigarria, blog-edukiak eta laguntza-zerbitzua eskainiko dira.
- Aliantzak: ikastetxe, unibertsitate eta gazte-elkarteekin lankidetzak ezarriko dira MindUp sustatzeko eta erabilera bultzatzeko.

Horri esker, banaketa zabala eta irisgarria bermatuko da, erabiltzaile potentzial guztientzat eskuragarri egongo dena.

Produktuen eta/edo zerbitzuen salmenta:

MindUp-ek eredu ezberdinak ditu:

- Doako bertsioa: oinarritzko funtzio guztiak eskainiko dira, erronkak, musika lasaigarria eta mezu motibatzaileak.
- Premium bertsioa (ordaindua): erabiltzaileek eduki eskusiboak, meditazio-saio gidatuak eta ongizate-profesionalarekin saio laburrak izango dituzte.



- Aplikazio barruko erosketak: adibidez, “motibazio-pakete” edo “musika espiritual” gehigarriak eskuratu ahal izango dira.
- Lankidetzak profesionalak: psikologo, coach eta hezkuntza-zentroekin batera, eduki bereziak edo tailer birtualak eskainiko dira.

Ordainketak linean egingo dira, kreditu-txartelen, PayPal-en edo ordainketa-segurtasun plataformen bidez.

HARREMANAK

Bezeroekiko komunikazioa:

MindUp-ek gazteekin harreman hurbil, positibo eta interaktiboa ezarriko du. Horretarako, hainbat komunikazio-kanal erabiliko dira:

- Aplikazioaren barruan: erabiltzaileek mezu pertsonalizatuak, aholkuak eta eguneroko erronkak jasoko dituzte. Adibidez, erabiltzaile batek antsietatea kudeatzeko erronka bat amaitzen badu, aplikazioak zorion-mezuak bidaliko dio edo gomendio berriak eskainiko dizkio.
- Sare sozialak: Instagram eta TikTok plataformetan, MindUp-ek eduki motibatzaileak, bideo laburrak eta aholku psikologiko errazak partekatuko ditu. Horrela, gazteekin harreman zuzena eta jarraitua bermatuko da.
- Podcast-ak: interesa duten erabiltzaileek astero email bidez edo audio laburren bidez erlaxazio-teknikak eta inspirazio-mezuak jasoko dituzte.

Helburua da erabiltzaileek entzunak eta lagunduak sentitu daitezen, eta aplikazioa bera euren eguneroko ongizatearen parte bihurtzea.

Harreman pertsonala:

MindUp-en helburua da erabiltzaileak babestuta eta entzunak senti daitezen.

Horregatik, aplikazioak laguntza pertsonalizatua eskainiko du:

- Bezeroek galderak egin edo zalantzak argitu ahal izango dituzte txat bidez edo posta elektronikozko arreta-zerbitzuaren bidez.
- Premium erabiltzaileentzat, ongizate-profesional batekin harreman zuzena izateko aukera eskainiko da (aholkularitza laburrak edo jarraipen-saioak).
- Harreman mota hau aukeratu da, gazte askok laguntza emozionala behar dutelako, eta MindUp-ek konfiantza eta enpatia transmititu nahi dituelako.



Harreman automatizatua:

MindUp-ek zerbitzu automatizatuak ere izango ditu, erabiltzaileek euren kabuz baliabideak eta gomendioak aurkitu ahal izan ditzaten:

- Aplikazioaren autozerbitzua: erabiltzaileek erronkak, ariketak eta musika hautatu ahal izango dituzte euren egoera emozionalaren arabera.
- Mezu automatiko positiboak eta aholku pertsonalizatuak: sistemak berak bidaliko ditu, erabiltzailearen jardueraren arabera.

Horrela, laguntza etengabea eta une oro eskuragarria izango da.

BALIABIDE MOTAK

MindUp-ek, gainera, komunitate birtual bat sortuko du, non gazteek euren esperientziak, erronkak eta emozioak partekatu ahal izango dituzten.

Horrek elkar-laguntza eta ko-sorkuntza sustatuko ditu: erabiltzaileek beraiek proposatu ahal izango dituzte erronka berriak edo motibazio-esaldiak.

Horrela, erabiltzaileek proiektuaren parte aktibo direla sentituko dute, eta MindUp beraien artean eraikitzen ari direla.

Baliabide fisikoak

MindUp-ek ez du denda fisikorik edo bulego handirik behar, baina bere jarduera garatzeko ezinbestekoak izango dira honako baliabide fisikoak:

- Lanerako gunea edo coworking-espazioa (Lauaxeta Ikastola), taldearen arteko koordinazioa eta lankidetzaz errazteko.
- Ordenagailuak eta gailu mugikorak (4 behar dira), aplikazioaren diseinua, programazioa eta probak egiteko tresna nagusi gisa.
- Zerbitzari digitalak (hosting-zerbitzuak), aplikazioaren datuak eta erabiltzaileen informazioa modu seguruan gordetzeko eta kudeatzeko.
- Grabazio eta edizio ekipoak, audio eta bideo motibatzaileak sortzeko eta eduki digitalen kalitatea bermatzeko.

Baliabide fisiko horiek funtsezkoak dira aplikazioaren funtzionamendu teknikorako eta edukien ekoizpen eraginkorrerako.



Baliabide intelektualak

MindUp-en arrakastaren oinarria bere edukien kalitatean eta markaren identitatean datza. Horregatik, baliabide intelektual hauek izango dira bereziki garrantzitsuak:

- Marka eta logotipoa, osasun mental positiboarekin eta gazteen nortasunarekin lotura zuzena izango dutenak.
- Eduki motibatzaileak eta psikologiako teknikak, jatorrizkoak, eguneratuak eta profesionalek gainbegiratuak.
- Erabiltzaileen datuen analisia, aplikazioa etengabe pertsonalizatzeko eta esperientzia hobetzeko baliabide estrategikoa.

Baliabide intelektual horiek MindUp-en balio-proposamena sendotzen dute, eta merkatuan bereizteko abantaila lehiakorra eskaintzen diote.

Finantza-baliabideak

MindUp martxan jartzeko behar den hasierako dirua honela lortuko genuke:

- Taldearen aurrezkiak eta ekarpen propioak: Proiektuak lehen pausoak eman ditzan, partaideok jarriko genukeen hasierako inbertsioa.
- Diru-laguntzak eta bekak: Osasun mentala, gazteen ongizatea edo berrikuntza soziala bultzatzen dituzten erakundeek laguntzak bilatuko genituzke.
- Startupentzako programak eta inkubagailuak: Bai diru-laguntzak, bai oinarrizko azpiegitura eta aholkularitza eskaintzen dituzten programetan parte hartuko genuke, lehen urteetan proiektua sendotzeko.

Epe ertainera, MindUp-en diru-sarrerak honetatik etorriko lirateke:

- Premium bertsioen salmentatik: Aplikazioaren barruan eduki edo funtzio aurreratuak eskainiz.
- Edukien sortzaile eta profesionalekin egindako lankidetzetatik: Psikologo, hezitzaile edo sortzaileekin elkarlanean prestatutako eduki espezializatuek ere diru-sarrerak ekarriko lituzkete.

JARDUERAK

MindUp-ek arrakasta izan dezan, hainbat jarduera funtsezkoak izango dira egunerokoan. Hauek dira nagusiak, azalpen zabalago batekin:



- **Aplikazioaren diseinua eta garapena:**

MindUp-en oinarria app bera denez, etengabe landu beharreko atala da. Hor sartzen dira diseinua, erraztasunak eskaintzea, datuen segurtasuna bermatzea eta funtzionamendu berriak gehitzea. Helburua da gazteek aplikazioa intuitiboki erabil dezaten eta esperientzia atsegina izan dadin.

- **Eduki propioen sorkuntza:**

Aplikazioaren barruan agertuko diren erronkak, ariketak, motibazio-mezuak, podcast edo audio erlaxagarriak sortzea. Horretarako, psikologo, coach eta hezkuntza-aditu profesionalekin elkarlanean arituko ginateke, edukiak kalitatezkoak eta gazteentzat egokiak izan daitezen. Edukien eguneratzea ere funtsezkoa da erabiltzaileak motibatuta mantentzeko.

- **Komunitatearen dinamika:**

MindUp-en barruan espazio bat egongo litzateke erabiltzaileek euren esperientziak partekatzeko, elkarri animoak emateko eta talde erronkatan parte hartzeko. Horrelako gune batek segurtasun eta errespetu giroa behar du.

- **Marketina eta sare sozialetako sustapena:**

Gehienak gazteak dira MindUp-en, eta haiengana iristeko TikTok, Instagram edo YouTube bezalako plataformak funtsezkoak dira. Eduki dibertigarriak, azalpen laburrak edo erronkak erabiliz proiektua ezagutaraziko genuke. Gainera, eskoletan eta gazte-elkarteetan hitzaldi edo tailer laburrak egitea ere aukera ona izango litzateke.

- **Aplikazioaren mantentzea eta datuen analisia:**

Behin appa martxan dagoenean, etengabeko mantentze-lanak behar dira: akatsak konpontzea, eguneraketak egitea, segurtasuna hobetzea... Gainera, datuen analisiari esker ikus liteke zein eduki funtzionatzen duen hobeto, zein ohiturek motibatzen dituzte gazteak.

KOSTUAK

Kostu finkoak

- **Webgunea (3.500 €) eta aplikazioa (15.000 €) garatzeko eta mantentzeko kostuak:**
Honen barruan sartzen dira webgunea eta appa diseinatzeko eta programatzeko lanak, baita gero egin beharreko mantentze tekniko ere (eguneraketak, segurtasuna, akats konponketak...). Prezioak ikusita, erabaki dugu dena geuk garatzea, ez kanpoko enpresei enkargatzea.
- **Taldearen oinarrizko soldata eta coworking-espazioaren erabilera:**
Ikastolan gaudenez, espazioa erabiltzea doakoa da, baina proiektuan parte hartzen duten kideentzat gutxieneko ordainsariak aurreikusten dira.
- **Marketin eta sare sozialetako publizitatea:**
TikTok, Instagram edo antzeko plataformetan marka ezagutarazteko egingo diren iragarki eta sustapen kanpainen kostuak.

Kostu aldakorrak

- **Eduki berrien ekoizpena:**
Aplikazioan sartuko diren musika lasaitzaileak, bideoak, testuak edo erronka berrien sorrera. Eduki gehiago sortzen dugun heinean, kostu hori handitu edo txikitu egingo da.
- **Psikologo, coach eta musikari freelance-en ordainsariak:**
Aditu hauek sortzen duten edukiaren edo eskaintzen duten aholkularitzaren arabera, ordainsariak aldatu egiten dira. Zenbat eta ekarpen gehiago, orduan eta kostu handiagoa.
- **Sare sozialetako publizitate digital malgua:**
Kanpaina bakoitzean zenbat inbertitu nahi dugun erabakiko dugunez, gastu hau aldagarria da. Uneko helburuen arabera igo edo jaitsi daiteke (adibidez, kanpaina berezietan diru gehiago jartzea).
- **Eskala-ekonomiaren abantailak:**
Erabiltzaile kopurua handitzen den heinean, kostu unitarioak jaisten dira. Bereziki nabari da hosting edo zerbitzu digitalen kostuetan: erabiltzaile gehiago izan arren, ez da proportzionalki gehiago ordaindu behar.
- **Hedapen-ekonomiaren abantailak:**
Behin edukiak sortuta, hizkuntza edo merkatu berrietara zabaltzea oso merkea da. Eduki berdinak erabil daitezke ia gastu gehigarririk gabe, itzulpenak edo egokitzeak txikiak baino ez direlako behar.



ONDORIO OROKORRA:

MindUp proiektua gazteen ongizate emozional eta mentalaren arloan ekarpen berritzaile eta beharrezkoa da. Gaur egungo gizartean, non estresa, antsietatea eta presio soziala gero eta handiagoak diren, MindUp bezalako plataforma batek laguntza eta orientazio erreala eskaintzen du. Bere balio nagusia gazteei euren burua hobeto ezagutzeko, emozioak kudeatzeko eta bizitza orekatuagoa izateko aukera ematea da, ingurune digital seguru, irisgarri eta hurbil baten bidez.

MindUp-ek teknologia eta gizatasuna uztartzen ditu: alde batetik, aplikazioaren diseinu intuitibo eta pertsonalizatuak erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen du esperientzia; bestetik, komunitateak eta profesionalak eskaintzen duten laguntza emozionalak gizatasun eta konfiantza dimentsioa gehitzen diote. Horrela, MindUp ez da soilik app bat, baizik eta gazteen ongizaterako ekosistema bat, non erabiltzaileek entzunak, lagunduak eta motibatuak sentitzen diren.

Negozio-eredu jasangarri eta malgu batek, freemium sistema, lankidetzak profesionalak eta publizitatea uztartuz, proiektuaren bideragarritasuna bermatzen du, eta aldi berean, osasun mentalaren inguruko kontzientzia soziala zabaltzen laguntzen du. Gainera, aliantza estrategikoak (psikologoak, hezkuntza-zentroak, eduki-sortzaileak, teknologia-enpresak...) funtsezkoak izango dira MindUp-en garapena eta eragina indartzeko.

Laburbilduz, MindUp proiektuak aukera ematen du gazteen artean osasun mentalaren inguruko ikuspegi berria eta positiboa eraikitzeko. Bere planteamendu integrala eta komunitarioa dela medio, MindUp-ek potentzial handia dauka belaunaldi oso baten bizitza-kalitatea hobetzeko eta autozaintzaren kultura berria sustatzeko. Bere mezu nagusia argia da: burmuinak ere atseden behar du, eta horretarako MindUp lagun ezin hobea izan daiteke.